

Zerbait ikaragarria

WILLIS DRUMMOND

EHZ festibaleko larunbatarekin, goizeko 1etan emandako kontzertua.



Andrea Zubozki

EHZ festibaleko larunbatarekin, goizeko ordubatean programatua zen Willis Drummond. Eszena handian. Eszena horrek (nire iduriko) ez du barkatzen; soi-nu eta argi potentzial alimalekoak ditu, ondorioz musika taldearen eskaintzak garbia eta zuzena izan behar du. Willis Drummondoko kideek eszena hori argiki jan digute, beldur izpirik gabe!

Kontzertua aitzin deia, jendea eszena aitzinean metatzen hasia zen. Bat-batean bi argi piztu dira eta sample baten bidez (uste dut) halako nota bat instalatu da, giro berezi baten emaille. Eta hor agertu da Felix, bateria jotzailea, eszena gainean, zuzen bateriarat; *Noiz da gero* kantua hasten du. Joseba gitararrat, hasierako kontra denboren jotzerat, eta ondotik Xan eta Jurgi agertzen dira. Kantua hasia da. Publikoa topera!

Gehientzat hitzordu nagusia zen Willisen kontzertua. Denak kantuz eta oihuka ari ginen, giro ikaragarria!



Ondotik jin dira *Ilegala* eta *Haustura* kantuak. Pausarik gabe, kantuak bata bestearen gibeletik jarraikiz.

Laboaren *Gaztetasuna* eta *zahartasuna* bertasioarekin segitzen dute. Eta hor agertzen da eszenarat berriz igo zaizkigula musikalitatez beterik; kantuaren baitan *crescendo* batzuk jartzen dituzte, mañifikoa! Ondoko kantuetan ere erakusten daukute kantuen intentzio ezberdinak biziki argi dituztela; lehen baino apalago jausten dira eta (beraz) gorago igaiten!

Zenbat gramo, Ur gainean, Berantegi, Ez da dudarik... Publikoan denak kantuz eta pogotatzen. Lekorneko lurraren errautsak aspaldian ez zuen hain gustu ona izan.

Musikariek eszena betetzen dute; hutsunerik ez espazioan, ez eta kantuen artean.

Bizpahiru aldiz berriz erabiltzen dute hasierako sample hori.

Bukaeraren hastapena; *A ala B* (nire ahotsa bertan galdu dut), *Anai*. Azken egurrak; *Tresna* eta *Ez da Izango*. Aldi honetan azkena dute... Denak galdezka, zoin kantu izanen da?

Gitaran Jurgik botatzen dauku *Behin argian ezarrita* kantuaren hastapena. Uuuff... Lehen diskoko kantu horrek zentzu handi bat badu pertsona ainitzendako, eta seguraski oraindik askoz gehiago Willis-ekoendako. Ikaragarria. Eszena lurperatu dute. Eta badoaz.

Beste bat? Bai! *Komedia*, aferak untsa finitzeko. Ez nuen besterik espero.

Kontzertu hori harrigarria izan da. Ez dakit nondik eta nola, baina tipo horiek kontzertu guztiz zerbait ikaragarria transmititzen digute.

Gora Willis Drummond! ■